

2016KO OTSAILAREN 2AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

BERTARATU EZINA ADIERAZTEN DU:

Mikel Herrador Iriarte jn.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko otsailaren 2a izanda, hemeretziak eta lau zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzaillea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2016ko urtarrilaren 12ko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
2	2016/01/12	BIZTANLE ERROLDAN OFIZIOZ BAJA EMATEA
3	2016/01/12	ETXEBIZITZA KOMUNITARIOKO AUTOBABES PLANAREN ESLEITZEA
4	2016/01/14	OBREN LIZENTZIA EMATEA BEHE-TENTSIKO HORNIKETAN BERMEA LINEA ORDEZKATZEKO
5	2016/01/18	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
6	2016/01/21	LURZORUAREN USTIAPEN PRIBATIBOAREN TASEN KITAPENAREN ONESPENA-NATURGAS

7	2016/01/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA ESTALKIA ALDATZEKO ETA FATXADA KONPONTZEKO
8	2016/01/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA FATXADA KONPONTZEKO ARRABAL KALEAN
9	2016/01/22	LURZORUAREN USTIAPEN PRIBATIBOAREN TASEN KITAPENAREN ONESPENA-NATURGAS
10	2016/01/22	OBREN LIZENTZIA EMATEA FATXADA KONPONTZEKO HORRADICHO-ENTREPEÑAS ERREPIDEAN
11	2016/01/22	ROSARIA ERREKAREN ZUBIAN BETEARAZTEKO AGINDUA
12	2016/01/29	2016KO OTSAILAREN 2KO OSOKO BILKURAREN DEIALDIA

3.- KONTSULTATEGI MEDIKOKO KOKAPENERAKO LURSAIL-LAGAPENAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.

Santikurutze Kanpezuko kontsultategia izateko eraikinaren titulartasunaren doako lagapenerako Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiaren 110. artikulua arabera tramitatutako espedientea adierazita. Udal honetako Osoko Bilkuran bertaratuek aho batez ONARTU dute:

LEHENA.- Santikurutze Kanpezun dagoen eraikinaren titulartasuna Osasun-Zentroa izateko Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioari doan lagatzea, ondoren deskribatzen da: Batzar Nagusiak kalean dagoen 166,10m²ko azalerako Lursaila-orubea, katastroko erreferentzia 0017-0001-3800

BIGARRENA.- Lagatzen den eraikina asistentzia sanitariorako ez bada gordetzen Kanpezuko Udalera itzuliko da jabari osoan, bere ondasun guztiekin eta akzesioekin; eta lagapena indargabetuko da. Lagapen horren iraupena izango da esandako asistentzia sanitariorako gordetzen den bitartean.

Ulertuko da eman den helburua bost urteko gehieneko epean bete behar dela, eta bere erabilera hurrengo hogeita hamar urteetan zehar mantendu behar duela.

HIRUGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak interesatuek aurkeztu ahal izateko. Horiek ez badira, akordioak behin betiko izaera hartuko du.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari, baita Ogasuna eta Finantzen Saileko Ondaren eta Kontratazio Zuzendaritzari.

BOSGARRENA.- Alkatetza-Lehendakaritzari ahalduzkoa akordio honen egikaritzean beharrezkoak diren agiri guztiak gauzatzeko.

4.- ETXEBIZITZA SOZIALAREN OINARRIEN ONARPENA, EGOKIA BADA. ZIOEN AZALPENA:

Kanpezuko Udalaren jabetza den babes sozialaren etxebizitza alokatzeko oinarri arautzaileen onarpenera beharrezkoa dela ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA

Arenaza andreak azaldu du pertsonen hautaketa egin izan diren beste une guztietako oinarriak berak direla, salbuespen bakarra da eskatutako erroldatze epea.

Saenz de Ugarte andreak adierazi du 5 urte gehiegi iruditzen zaiola, eta murriztailea izan daitekeela.

Alkate andreak aipatu du ezarritako legezko marjinaren barruan sartzen dela, eta gainera egon daitekeen eskaria gaur ez direla ezagutzen.

Quintana andreaki oso murriztailea iruditzen zaio eraikinaren dimentsioak kontuan hartuta.

Arenaza andreak adierazi du bete gabe geratzen bada, ahalik eta lasterren aldatuko dela prozesua aurrera egiteko.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Onartu dute Basterra, Muñoz, Sáenz, Arenaza eta Ruiz de Loizaga Zinegotzi jaun-andreen aldeko 5 botoekin; eta Quintana, Sáenz de Ugarte eta García de Acilu Zinegotzi jaun-andreen 3 abstentzioekin.

LEHENA.- Santikurutze Kanpezun dagoen alokairu sozialeko etxebizitza okupatzeko pertsonen hautaketarako oinarri arautzaileen onartzea.

BIGARRENA.- Esandako oinarriak Udalaren web orrian www.campezo.eus eta iragarki taulan 15 eguneko epean argitaratu, eskaerak aurkeztu ahal izateko.

5.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotziak, Inauterietako jarduerak aipatu ditu; hasteko larunbat arratsaldeko programaren arabera jaia, eta ondoren asteartea, Toribio gehi zonaldeko pertsonaia ospetsua.

Igandean, ETB1ean, 22:00etan grabatu zuten programa emitituko da.

Udala, Kuadrilla eta elkarten arteko programazio bateratua osatzen ari da jarduera kulturalak programatzeko.

IGO programa garatu nahi da, iaz ere Kuadrillak landu zuena; eta irakurketa euskaraz sustatzea.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, kontsultagiaren inguruan izandako bilerak aipatu ditu, izan ere buletinean argitaratzearen zain daudela lanak hasteko, urte bukaeran.

Era berean, 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako kartel digitalen lehiaketa abian dagoela gogoratu du, adin-tarte hori parte hartzera gonbidatuz.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, Izkin egindako bilera aipatu du non Herrador jauna Lehendakari izendatu zuten. Hurrengo saioan, lehenengo bilera eraginkorra egingo da; horretan, Muñoz jauna bera udal ordezkaria izango da.

Hurrengo bilkurarako pasako da Udalaren finantza-egoera, oraindik pentsatu behar da nola eman informazioa modu eraginkorrean. García de Acilu jaunak adierazi du hiler informazio hori ematea atzeratuko dituela, eta ez dela oso praktikoa izango.

Muñoz jaunak adierazi du egin ahala ikusiko dutela; eta, ondoren, maiztasuna aztertuko dela.

Esan du ere informatika alorreko mantentze lanetarako kontratu bat egiteko aurrekontuak eskatu direla. Garcia de Acilu jaunak adierazi du ez duela helburua, izan ere Muñoz jaunak azaldu duen moduan kontratu finkoa ematen du. Muñoz jaunak adierazi du Udalaren sistema informatikoaren egoera zein den aztertu nahi dutela; ondoren, beharren arabera erabiliko den ordu multzo bat zehazteko. García de Acilu jaunak esan du aurrekontua ikusi beharko dutela. Muñoz jaunak erantzun du ez duela gastua izan behar, inbertsioa ere izan daitekeela, segun eta nola begiratzen den. Quintana andreak galdetu du ea dakiten zenbat ordu eman dituzte udal teknikariek. Muñoz jaunak

esan du hasteko txostena aztertuko dutela, eta ondoren, ikusiko dela. García de Acilu jaunak zehaztu du hasteko gastua dela.

Adierazi du bi langileak kontratatuko direla biodibertsitako programa baten bidez, dagoeneko lehenengo lanpostua betetzeko eskaintza atera dela. Ostiralera arte izango da iragarkia, ondoren hautaketa prozesua abian jarriko da. Bigarren lanpostua ekainaren amaieran eskainiko da.

Bukatzeko, azaldu du Ekain kontratatu dela kanpo-lege-aholkulari bezala, dagoeneko Udalarekin lan egin baitu; 68€/orduko eskaintza egin dute, hilean 8 eta 10 ordu gehienez. Garcia de Acilu jaunak adierazi du beste gastu bat ere badela. Muñoz jaunak azaldu du gastua ala inbertsioa izango dela, ezin duelako epaitegietara joateko beharra ekidin; 2015ean lege-aholkularitzako partida 55.000 eurokoa izan zen onartu beharrekoa zen ebazpen judiziala zela eta, hortaz aurreztea ere ekar dezake. Quintana andreak adierazi du aholkularitza hori kostua ez den beste bide batetik bila daitekeela. Muñoz jaunak azaldu du Alkatetzari eta bere taldeari aholkularitza-laguntza badela, Udal Idazkaritzaren ekarpenari gehitu egingo duena, zenbait espediente eta eman nahiko duten urratsetan. Garcia de Aciluk ez du ulertzen aholkularitzarena, eta zer esan nahi duen. Saenz de Ugarte andreak esan du jakin nahiko lukeela zertan emanten duten orduak eta sortutako gastua.

Une honetan bertaraturakoen artean eztabaida sortzen da.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza Zinegotziak, garbigunea aipatu du, lana egiten ari dela esanez; eta bihar bertan edukiontziak jarriko direlakoan dagoela.

Arabako Lanak-ekin bilera egin da Santikurutzen dauden etxebizitza eta garaje tasatuen prezioak merketzeko, eta hurrengo egunetan prezio berriak emango dizkigute publizitatea egiteko.

Era berean, 50 urte baino gehiagoko eraikinetan egin beharreko EITri buruz haiekin hitz egiteko aprobetxatu dute, eta kanpaina egingo dute ez atzeratzeko.

Mendi Zerbitzuburuarekin hitz egin dute mendietan motordun ibilgailuak erabiltzeagatik jarri diren hainbat kexen inguruan; izan ere, indarrean dagoen araudia ez da betetzen ari, eta aprobetxatu nahi dute Sailarekin bilera izateko, eta betearazteko.

Otsailaren 14a edo 21a zuhaitzaren eguna egingo da. Araba Camper aldean eta Industrialdean zuloak egin dira dagoeneko.

Adierazi du sakelako telefonoaren bidezko komunikazioak erabilita, parte hartzeko sistema bat pentsatzen ari direla, Araba Camper eta beste eraikinetarako sarbideen kontrola instalatzeko helburua aprobetxatuz.

6.-ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten; ez dira eman, ordea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak sei gutxitan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.